

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
68	69	136	171
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
1.424	362	2.972	1.341
positibo guztira*	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta
*Hernanin 31 Astigarragan 6		Sendatuak: 3.098 EAEn; 311 Nafarroan.	

Artista eta sortzaileak lanean, baita ere etxean

Emanaldi, aurkezpen eta ekitaldi guztiak bertan behera geratu diren honetan, itxialdiari modu desberdinean erantzuten saiatzen ari dira sortzaileak.

HERNANI KULTURA

Langile sektore osoari ari zaio eragiten Koronabirusaren zabalpenari fretoa jartzeko ezarritako berrogeialdia. Zer esanik ez, artista eta sortzaileei. Askok, aurreikusita zituzten emanaldi eta aurkezpenak bertan behera utzi behar izan dituzte, eta ez dakite lanik izango ote duten datozen hilabeteetan, ezta, ondorioz, batere diru-sarrerarik ere. Egoerari, hala ere, aurre egin behar, eta bide desberdinak hautatu dituzte.

'Arraroa' liburua Axpik, egun hauetarako gomendio

Egunkarietarako lanean ari da Ainara Azpiazu Axi ilustratzailea, egun hauetan. *Nire amama umea da, ni bezala* ipuina ere argitaratu berri du Alaine Agirrekin, baina aurkezpen ekitaldia bertan behera utzi behar izan zuten martxoaren 14an.

Dena den, liburua eskuratzeko aukera izanez gero, gozatzeko gomendioa egin du. Ber-



Ilustratzaile, idazle eta musikariek ahal duten heinean segitzen dute lanean.

din, *Arraroa* ipuinarekin, «egun hauetarako ezin aproposagoa». Paula Estevezekin batera argitaratu zuen duela bi urte, Etxepare Sariaren bitartez. «Etxeak eta bizilagunek protagonismoa dute bertan. Entretenigarria da, eta zer pentsatua ematen du, bizilagunen inguruan hausnartzeko aukera, zein aurreiritzi izaten ditugun konturatzeko».

Bi lan berri, Sainz de Murietak Hernanin bizi den Iñaki Sainz de Murieta idazle donostiarrak, berri, bi lan argitaratu ditu.

Batetik, Verbum argialetxeak kaleratu berri duen *Mitos y Le-*

yendas de Europa antologian hartu du parte *Fuenterrabia, tierra de vikingos* ipuinarekin, 2019ko Haur eta Gazteen Verbum Saria irabazi zuelako. Ahozkotasunean eta folklorean oinarritutako leienda bilduma da.

Bestetik, argialetxe berarekin *El ocaseo mexicana - Moctezuma Xocoyotzin* argitaratu berri du, bere aurreneko komikia, eta salgai dago.

Ainara Ortega, birala

Ni, munduko txarrena antzerkia estreinatu berri, bertan behera geratu zaizkio emanaldiak Ainara Ortega Barrenetxea aktore eta musikariari. Baina etxetik

ari da, adibidez, Euskadi Irratia-ekin musikari buruzko hainbat irratsaiotan kolaboratzen.

Sortzeari ere ez dio utzi, eta berezkoa duen umore ukitu garratzari uko egin gabe, garai hauetarako ironia eta kritikaz betetako kantua egin du, Youtube-
ben ikusgai: *Beira, biral!*

Maite Larburu, aukerez

Musikaria da Maite Larburu, eta berak ere etxean geratu besterik ez du. Baina berrogeialdia arintzeko kantua egin du, animoak emateko eta egoera honetan, gauza berriak sentitzeko gonbidapena luzatuz. **K**

Konfinatuta, bi astez gehiago

URUMEA KORONABIRUSA

Diputatuen Konseiluari konfinamendua beste bi astez luzatzea eskatu zion atzo Pedro Sanchez, Espainiako presidentea. Kontrakorik ezean, apirilaren 26ra arte luzatuko da, eta ordutik aurrera ere, neurri gehiago izango dira, baina «malguagoak».

Erramu Igandea gaur, interneten

URUMEA ELIZA

Aste Santuko Sarrera elizkizuna egingo da gaur 11:00etan, Erramu Igandearrekin, baina egoerak hala behartuta, internet bidez. Meza ikusteko 'Urumea Harana Pastoral Barrutia' bilatu behar da Youtube edo Googlen.

'Maritxu Balkoi', gaur eguerdian

HERNANI LIZEAGA

Eguerdiko 12:00etan daukate zita gaur Lizeagako Madalena 8 plazan: Maritxu Balkoi ospatuko dute. Dotore jantzi eta argazkiak egin beharko dituzte, eta maritxubalkoi@gmail.com helbidera bidali. Bingoan ariko dira gero.

Astarberen jakiak, Ospitalera

ASTIGARRAGA SAGARDOA

Txotx denboraldia eten den honetan, Astarbek online denda jarri du martxan, eta etxeetara eramaten ditu sagardotegiko jakiak eta sagardoa, txuleta hanburgesak tarteko. Hauetako bost banatzean, beste bat Donostiako Ospitalera bidaltzen dute «langileei herritarren animoak helaraziz».

Postari postua, beteta

GOIZUETA LAN-ESKAINAZA

Udalak jakinarazi du dagoneko kontratatu duela postari lanetarako langile berria.

Sirena hotsak balkoietatik, erraustegiaren aurka

Konfinamenduak iraun bitartean, egunero eguerdiko 12:00etan hegazkinen aurkako alarmen sirena jartzeko deia egin du GuraSOsek, «dioxina eta beste toxiko batzuegatiko osasun alerta» gisa.

URUMEA GURASOS

«Gipuzkoako erraustegiak koronabirusarengatik konfinamendu betean isurtzen dituen dioxina eta beste toxiko batzuegatiko osasun alerta» adieraziko duen sirena hotsa zabaltzeko ekimena jarri du martxan GuraSOsek, gaur.

Konfinamendu egoerak iraun bitartean, egunero 12:00etan hots hori balkoietatik zabaltzeko dio.

Kontzientzia hartzea, helburu «Erraustegiak abiarazte fasean jarraitzen» duela salatu du, eta «martxoaren 31n isurketa itzelak» egin zirela.

Horregatik, ekimenarekin «herriarrek kontzientzia hartzea» nahi du, «zer nolako arriskua dakarren honek euren bizitza eta osasunari begira. Txosten zientifikoekin egiaztatu da erraustegiak Kutsatzaile Organiko Jarraikiak isuriko dituela, beste substantzia toxikoak ere bai, minbizi eta mu-

tazio sorrarazleak eta giza ugalkortasunari eragiten diotenak».

Bestalde, salatu du asmoa dagoela, «legez kanpo, Zaldibar-ko zabortegian isurtzen ziren industria-hondakinak eta beste batzuk Gipuzkoako Erraustegian erretzeko, Jaurlaritzaren aginduz, Confebaskekin adostuta». **K**

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, apirilaren 14ra arte:
kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:
/ Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.
/ Iniziatiba eta enpatia.
/ Publizitate edo marketing ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAIJO:
/ Kontratua: sei hilabetetarako.
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:
/ Urumea bailara ezagutzea.
/ Doberako bazkide izatea.
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.
/ Publizista lanetan esperientzia.
/ Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
/ Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

Zorionak Nahia!!!

Gaur 12 urte!

Muxu pila familiaren partetik!

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak * Erransketak eta asperu etxeekin * Lekualdatzeak * Beilatokiak * Eskelak, korak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

GAUR Laino gehiago izango da, giro eguzkitsua nagusituko den arren. Hego-haizea ibiliko da, tarteka, zakar, eta temperatura epel mantenduko da. Gauean baliteke euria egitea. **Min.13° / Max.21°**

BIHAR Lainotu eta eurrira joko du, egunaren bukaeran atertze inguruko badu ere. Haizea aldakor ibiliko da, eta freskatu egingo du. **Min.10° / Max.15°**

DOBERA ARGITARATZAILA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK
Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Erretxako Auzo Urtia

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Odrizola** Idiazabal, 18 (Urnietan) **943 334014** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

«Egoeraren eragin erreala ezagutzeko» testigantzak jasotzen, Gazte Asanblada

«Osasun-krisi batetik haratago, langileriaren kontrako ofentsiba agerian geratu» dela salatu du, 'Burgesiaren ofentsiba gelditu' kanpainarekin.

HERNANI GAZTE ASANBLADA

Koronabirusak, «mundu osoa hankaz-gora jartzen ari den pandemia honek, aspaldian ikusi gabeko ondorioak ekar ditzaizkeela» ikusi du Gazte Asanbladak. «Osasun-krisi batetik haratago, langileriaren kontrako ofentsiba bat agerian gertatu ari da», haren ustez.

Horregatik, «ofentsiba honen benetako eragina eta izan ditzakeen ondorioak ezagutzeko langileriaren testigantzak jaso nahi» dituela adierazi du.

«Burgesia gertatzen ari denaren egia osoa ezkatzen ari da»

Hernaniko Gazte Asanbladak Gazte Koordinadora Sozialistak martxan jarritako kanpainarekin egin du bat horrela: *Burgesiaren ofentsiba gelditu*. Helburua da «fenomeno honen eragin erreala ezagutzeko». Izan ere, «burgesia gertatzen ari denaren egia osoa ezkatzen ari» dela diote, «orokorrean, langileria izango baita krisi honen ondorioak pairatu beharko dituen».

Horregatik, «burgesiaren ofentsiba langileriaren baitan

eragiten ari den ondorioak eza-gutu» ahal izateko, Hernanin eta eskualdean gertatzen ari denaren berri jaso nahi dute testigantzen bitartez. «Gure buruak defendatu ahal izateko bitartekoak sortzea begira, ezinbestekoa zaigu gertatzen ari dena ezagutzeko».

Testigantzak emateko prest dagoena 657 795 822 telefonoan edo kontrakantxagazte@gmail.com helbide elektronikoa jarri daiteke Gazte Asanbladarekin harremanetan.

«Ofentsibaren eragina», hainbat esparrutan

Honek guztiak hainbat esparrutan eragiten duela adierazi du Gazte Asanbladak, eta bakoitzeko testigantzak jaso nahi lituzkeela.

Horietako bat da «auzi laborala», adibidez. «Lanik gabe geratu diren milaka langile daude, ERTEak aplikatuta, edota kontraturik gabeko lanean ibili izanagatik... Bestalde, lanean jarraitzen duen jendea dago, baina egoerak behartuta eta aitzakia horrekin, lan-kargak zeharo haundituta eta baldintza okerragoetan, kutsatzeko arriskuak asko areagotuta».

Bestalde, «kontrol soziala ikaragarri haunditu» dela diote, eta «behartutako konfinamenduan askatasun politiko oro debekatu. Egunero ikusten ari gara polizia ezberdinen atxiloketa, jipoi eta isun arbitrarioak kalean dabiltzen jendearengan. Gehiegikeria horiek jasotzea da helburua».

Era berean, osasunaren arloan, diote «nabarmen» gertatu dela «osasungintzak ez dituela beharrezko baliabideak izan egoerari aurre egiteko» eta zahar-etxeetan ere, «egoera gordinak» bidi direla.

Azkenik, «konfinamenduak sortu duen salbuespen egoerak» eragiten dituen beste kasu batzuk ere izan nahi dituzte kontuan: «etorkinenak, etxerik ez dutenenak, etxean bertan arazoak izan ditzaketen familienak, erasotzaileekin bizi daitezkeen emakumeenak...».

'Hilerokoa' eta proposamenak, sare sozialetan

Bestalde, Kontrakantxa Gazte-txearen facebook, twitter eta instagram kontuetan, egun hauetarako hainbat irakurgai, dokumental edota irratsaioren berri ematen ari dira. Egunero proposamen berriak egiten dira.

Era berean, Gaztetxeko jardueren berri jasotzen duen *Hilerokoa* argitalpenaren ale guztiak eskuragarri jarri dituzte. **K**

ETBko kanalik ez, bihar goizean

GOIZUETA TELEBISTA

Udalak jakinarazi du «arazo teknikoak konpontzeko lanak direla-eta», bihar goizean, 08:00etatik 13:00etarako tartean ezin izanen direla ETBko telebista kanalak ikusi, herrian. ETB1, ETB2, ETB3 eta ETB4 kanalei eragingo diete lanek.

Beñat Ruiz, garaile

ASTIGARRAGA MUNDARRO

Egunean 5, herriari eta klubari buruzko galdera lehiaketa jarri zuen martxan Mundarrok konfinamenduaren hasieran. Finala jokatu, Beñat Ruiz izan da txapeldun, 21 punturekin. Atzetik geratu dira, Irati Saralegi (18), Jokin Saralegi (8), Uxue O. (5), Airzko (5) eta Ekain G. (2).

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.



Hondakinak biltzen dituzten pertsonen elkartasunik eza!

Horixe adierazten du argazki honen. Zabarkeria, utzikeria! Esan behar dugu, zorionez, gutxi direla utzikeria honetan jausten direnak; hernaniar gehienak solidario dira hondakin biltzaileekin, baina, tamalez batzuk ez, eta salatu behar dugu.

Osasun arloko langileak dira gehien ematen ari direnak egoera berezi eta larri honetan, eta ongi mereziak dituzte ilunabarraren jasotzen dituzten txaloak. Baina ez dira bakarrak. Izan ere,

hondakin biltzaileak ere gogotik ari dira lanean, eta errespetua merezi dute, eta ez batzuek erakutsi duten zabarkeria.

Espero dugu honelako oharrrak berriz ere atera beharrik ez izatea. Eta hondakinak txukun ateratzen dituzten herritarren gehiengo horri gure txaloak eta agurrik adeitsuena.

Mattin Aldaia Olasagasti, Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotzi delegatua

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ANTONIA CASCO RODRIGUEZ

Ezin malkoei eutsi izeba,
ez muxu eta ez besarkadaz agurtu,
baina zurekin bizitutakoa
gurekin gelditzen da betiko.

**Zure ilobak: Loli, Isa, Ana, Luci,
Ainhoa, Pepe, Pupe, Antuan, Rafa,
Andrés eta Yoli.**

Hernanin, 2020ko apirilaren 5ean

IRAGARKI MERKEAK

ONDDI AKADEMIAN streaming bidezko klaseak eskaintzen ditugu DBH eta Batxilergoan.
Info gehiago: **688719571** edo onddiakademia@gmail.com
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Ez da gaitzik, onik ez dakarrenik

Nork igarriko zukeen monarkia-aren eta errepublikaren menpeko lorategi zelatatuenetan landatutako hosto iraunkorreko zuhaitz preziatuenak, hasi berri udaberriari hostoz gabetuko zituenik!

Arbola arraioak, artaldeari gerizpea eta babesa emateko aitzakian landatuak, baina egiari zor basoa ostendu eta eguzki-printzak ikustea ekiditeko ezarriak, gure etxaldeko ugazabandrea eta ugazaba ororentzat totem bihurtu dira, salbuespenik gabe ezker-eskuin zeharka begiratuta ere.

Baina ustekabez, ikusezinezko etsaiak salbuespen gerla egoeran jarri gaitu, eta errealtatea gordinki azaldu da: aginte-katean, foru erkidegoa, autonomia erkidegoa eta elkargoa hutsaren hurrengo dira. Zuhaitz sendoak eta boteretsuak zirelakoan ezdeus direla argi ikustera, aitaren batean.

Osasun-krisialdiaren gestio mi-

litarrak, Euskal Herriak pairatzen duen okupazio-erregimena agerian utzi du, eta era berean, eusko jaurlearitza, foru gobernu eta euskal elkargoa botere politikotik zenbakaitz argi-urtetara daudela, baita ere. Hobeki esanda, gure lurraldean zapaltzaileek ezarritako menpeko administrazio sareak ezin duela Madrilgo eta Pariseko administrazioaren interes nagusien aurkako ezer erabaki, inperialisten menpeko administrazioak direlako, hain zuzen ere. Touché!

Euskal Herria alarma egoeran dago, zinez eta minez. Gure herriarentzat zapaltzaileek etxaldean sustraitutako sistema politikoak pandemikoak dira, eta munduan izurrite mota horri eraginkor aurre egiteko sendagai bakarra erresistentzia bada, istantean has gaitzen neurriak hartzen, demontre!

Erresistentziaren karietara, egoeraren larritasunak bultzatuta

aberkide talde sutsu bat jo eta ke ari da gure herriko zapalkuntzari eta askabideari buruz herriz-herriz ikastaroak antolatzen, eta Euskal Herriko bazter gordeenentara joateko grina helarazteko kanpaina abian jarri duenez, mezua hedatzeko guztion laguntza abegi onez hartuko duelakoan nago.

Bestalde, Aberri Egunaren harira, ekintzaile talde ezberdinek bat eginda eta alderdi politikoetatik at 'erresistentzia balkoitik baikoirak' ekimena iragarri berri dute, abertzale zintzo orori apirilaren 12an gure ikur nazionalak diren nafar bandera eta ikurriña batera etxeetan zintzilikatzeko gonbita eginez. Bejondeiela!

Agurtu aurretik, Euskal Herriaren independentzia lehentasunezko helburu duguontzat hashtag iradokitzaile bat: #desikasi.

Iñigo Gallartzagaitia Zorrotzua